




Marka berria Gizarte Segurantzako afiliazioan

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko azaroa. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Azaroan, Gizarte Segurantzako afiliazioak urte arteko %1,2 egin zuen gora, aurreko hileko tasa errepikatuz. Hain zuzen ere, lortutako zifrak 1.020.000 afiliazio gainditu zituen bigarren hilabetez jarraian, eta serie historiko osoko erregistrorik gorena da. Beste behin ere, emakumeek (%1,3) gizonen (%1,0) baino protagonismo handiagoa izan zuten iguera horretan.

Langabezia erregistratua gutxitu zen azaroan

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko azaroa. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Lanbideren bulegoetan azaroan erregistratu zen langabezia murriztu egin zen, bai aurreko hilaren aldean, bai aurreko urteko azaroaren aldean. Urte arteko aldakuntza tasa %0,2 jaitsi zen eta hil artekoa, berriz, %0,6. Bestalde, 107.900 langabe kontabilizatu ziren, 2008tik azaro batean izan den kopururik txikiena.



Ekonomia %1,8 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

EAEko barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen arabera, EAEko ekonomia %1,8 hazi zen 2024ko hirugarren hiruhilekoan. Eskaintzaren araberrako analisiak iradokitzen du hiru sektore nagusiek aldakuntza tasa positiboak eskuratu zituztela, batez ere zerbitzuek (%2,2), baina baita industriak (%0,7) eta eraikuntzak (%1,5) ere.

EAEko industria jarduera %3,3 jaitsi zen

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko urria. Indizea



Iturria: Eustat.

Eustatek berriki argitaratutako datuen arabera, **industriaren ekoizpena %3,3 murriztu zen urrian, aurreko urteko aldi beraren aldean.** Jai-tsiera horretan indizearen osagai guztiek hartu zuten parte, eta beherrakadak ekipamendurako ondasunen %1,7tik kontsumo iraunkorreko ondasunen %18,6ra bitartekoak izan ziren.